

LABURRAN

ANTZERKIA

'Tengamos el sexo en paz' antzezlanaren aurkeztuko du Producciones del Mar taldeak gaur Donostian

GIUSEPPE FARINACCI / EPA
Dario Fo idazlea.

Dario Foren *Tengamos el sexo en paz* antzezlanaren aurkeztuko du gaur Kanaria uharteetako Producciones del Mar taldeak Donostian. Kabaret moduan egokitu ondoren, sexualitatearen eta bere inguruko tabuen ikuspegi «fresko eta dibertigarria» eskaintzen dutela adierazi zuten taldeko kideek. Musikan eginiko berrikuntzez gain, pertsonaia berri bat ere gehitu diote Foren jatorrizko obrari. Protagonista kabaretera bat da, eta haren bidez gai anitz jorratzen dituzte; orgasmoa eta inpotentzia, besteak beste. *Summertime*, *Guantanamo* eta *Sex Bomb* kantuen musika ere agertzen da, baina hitzak obrarako egokitu dira.

zuten dituzte; orgasmoa eta inpotentzia, besteak beste. *Summertime*, *Guantanamo* eta *Sex Bomb* kantuen musika ere agertzen da, baina hitzak obrarako egokitu dira.

MUSIKA

Musikeneko Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du gaur

Goi Mailako Musika Ikastegiko —Musikene— Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan, Donostiako Miramonen, 20:00etan. Juan Jose Ocon Euskal Herriko Gazte Orkestrako zuzendariak gidatuta joko dute 63 ikasleek. Beethovenen, Schuberten eta Bernsteinen obrak interpretatuko dituzte. Kontzertuan Musikeneko koruak ere kantatuko du.

MUSIKA

Bluesari buruzko kontzertu didaktikoa, EOSen eskutik

Orkestraren Musika Zabalik egitarauaren baitan musika estilo anitzen kontzertu didaktikoa eskaintzen ari da Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Bihar hirugarrena izango du, eta bluesari egingo dio tartea. Orkestrako kide Mikel Azpiroz Trioko musikariak izango dute zeregin horren ardura. Mikel Azpiroz, Txema Garcés eta David Gomezek bluesaren estilo anitz interpretatu eta azalduko dituzte.

DANTZA

Trava taldearen dantza berritzailea La Fundicionen

Heini Nukari eta Anna Jankowska dantzariak osatzen duten Trava taldea dantzan egon daitezkeen bide esperimentaletan sartua da 1998az geroztik, eta bi obra berriekin etorriko da Bilboko la Fundicionera, bihar eta etzi, 20:30ean. *Station Kautschuk* obran Nukari bakarkako lanean izango da, forma futuristak eta arkaikoak nahastuz. Ez dauka argumenturik, dantzariak gorpuzten duen pertsonaiaren existentziaren oharraztea baita helburua. *No time for wasa* lanean, berriz, Nukari eta Jankowska ariko dira denboraren gaineko gogoeta egiten.

ONDAREA

Eibarko Coliseoa zaharbertzeko lanetarako lehiaketa

Eibarko Coliseo Antzokia zaharbertzeko lanetarako lehiaketa abian jarri du Espainiako Sustapen Ministerioak; izan ere, aurrekontuaren % 70 ministerio horretatik aterata da —bi milioi euro eta erdi inguru—, eta gainerakoa Udalak jarriko du. Victor Eusak diseinatutako antzokia 1947 eta 1951 urteen artean egin zuten, eta Gipuzkoako arkitekturan eragin handia izan zuen espresionismoaren baitan dago.

MUSIKA

'Viajero' lehenengo diskoa ateratu du Lis musikariak

Lis kantari eta konpositoreak bere lehenengo diskoa argitaratu du, *Viajero*. Musikariak idatzitako bederatzi kantu, eta *Guantanamo* eta *Házmelo sólo una vez* kantuen egokitzapenak osatzen dute lana. Bere kantuak gordetzeko euskaria behar zuelako kaleratu duela adierazi du, inongo arrazoikomertzialik gabe. Bederatzi urterekin hasi zen Lis musika konposatzen, eta gitarra eta pianoa ere jotzen ditu.

ARTEA. Gazteekin lortutako elkarrekintza goraipatu du zuzendariak

Artium museoak 101.838 bisitari izan zituen iaz, ia 500 egun bakoitzeko

Hamar urtean kopuru hori bikoitzeko helburua du patronatuak

Ivan Santamaria | GASTEIZ

2002. urteko balantze «pozgarria» aurkeztu du Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoko patronatuak. Zortzi hilabetez zabalik egon ondoren, aurreikuspenak gainditu eta 101.838 lagunek bisitatu zuten Gasteizko Frantzia kaleko eraikina. Lehen urterako 90.000 bisitari espero ziren, Arte Ederretako museora joandako pertsona kontuan izanik.

Jendetza erakarri zuen museoaren zabalteak. Lehen hilean, hain zuzen ere, 33.000 lagun izan ziren Artiumen. Ondoren, hilabete bakoitzeko ia 10.000 pertsona bildu dira. Museoak ateak zabaldu dituen egunak kontuan izanik, 480 pertsona egunero. Arreta gehien piztu duten erakusketak Bilduma iraunkorra (67.200 bisitari), *Melodrama* (61.100) eta *Bestearen begirada* (34.000) izan dira.

2003. urterako ez du egin nahi publiko aurreikuspenik Javier Gonzalez de Durana zuzendariak. Haatik, hamarkada batean iazko kopurua bikoitzea dela helburua onartu zuen. Horrez gain, aurrekontua eta bisitarien artean dagoen harremana kontuan hartzea eskatu zuen. Artiumen, hain zuzen, 43,84 euro gastatu dituzte bisitari bakoitzeko, Bilboko Guggenheimen baino hamar gehiago.

Egunik merkeena gogokoan

Bisitari gehien bildu dituen aste eguna asteazkenak izan dira. Egun horietan Zeuk Erabaki programa martxan du museoak. Hots, zentimo batetik hasita, pertsona bakoitzak nahi duen sarrera ordaintzen du asteazkenetan. Diru horrekin, gainera, artelan bat erosiko dute.

Asteazkenetan 32.582 pertsona joan dira Artiumera, 950 egun bakoitzeko. Borondatez



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Orlan artista frantziarra, Artiumen izan zenean, joan den ekainean.

ordaindutako sarreraren bidez 12.539 euro lortu dituzte. Asteburuetan, larunbatak eta igandeak batera hartuta, bisitarien %41 jaso ziren.

Jatorriari dagokionez, arabarrak izan dira Artiumen gehien goa (%43). Bisitari guztien kopurua kontuan hartuta, berriz, %84 Arabatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik iritsi ziren arte garaikideko museo bisitatzerako. Ia %13 Espainiatik etorri ziren. Kataluniako bisitari asko ere izan ditu museoak.

Artiumek gazteen artean izan duen «zabaltzea eta elkarrekintza» txalotu zuen Gonzalez de Duranak. Esaterako, ia

9.000 ikasle hartu zuten parte tailerretan eta gazteei zuzendutako programazioan.

Guztira, hamasei erakusketa jarri zituen martxan Artiumek 2002an. Artezaleen eta adituen artean oihartzuna izan dutela uste du Gonzalez de Duranak. «Guk antolatutako bi erakustaldi, *Melodrama* eta Thomas Ruffen atzerabegirakoa, Espainian izan ziren hamar erakusketa onenen artean izendatu zituzten».

Datozen ekitaldiak direla eta, Artiumek erosi dituen azken artelanekin otsailaren hasieran erakusketa zabalduko dutela esan zuen zuzendariak.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)

Egun: 40 €
Astea (6 egun): 32 €
2 aste (12 egun): 28 €
Hilabetea (24 egun): 18 €

33 x 33 mm
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 20 €
Astea (6 egun): 16 €
2 aste (12 egun): 14 €
Hilabetea (24 egun): 9 €

Oarsoaldean kokatuko den kultur ekoizpen enpresa batek 2 kultur koordinatzaile, bulegaria (informatika eta kontabilitatea), saltzailea eta begiraleak behar ditu.

Soldata:
1.000 € eta 1.500 € artekoa
Kurrikuluma bidali
eps2003@telefonica.net